

FAMILIENTZAT PROZEDURA ORRIA

Arazo baten aurrean: ZER EGIN?

GAINZURI IKASTETXEKO ELKARBIZITZAK FILOSOFIA

HAU DU OINARRI:

Gizakion bizikidetzan, gatazkak berezkoak direla onartzen dugu, baina aurkakotasun egoera hauek ondoezak sortzen dituzte eta konponbidea behar dute eguneroko elkarbizitza oker ez dadin.

Gatazkak ez ditugu mehatxu gisa hartu behar, elkarbizitza hobetzeko aukera bezala baizik, bere alde onak ikusiz, esate baterako, egoera hobeto ulertzeko egin beharreko elkarbizitza eta besteren esanetan jarri beharreko arreta bezalako ariketak.

A.- EGOERA

Ikasleak arazo bat du eta gurasoek eskolara jotzen dute.

Familiek eman beharreko pausoak

1. Tutoreari arazoaren berri emango diote. Arazoa honen esparrukoa bada bera saiaturiko da irtenbidea aurkitzen.
2. Gertaeran inplikaturako irakasleak bideratuko du arazoaren konponbidea, beti ere tutorea jakinaren gainean jarritz.

Tutoreak une hauetan irakaslearen eta familien arteko harremana bideratuko du.

3. Arazoa begirale baten gunekoa bada, tutoreak familiek diotenaren berri emango dio begiraleari honek bidera dezan. Bideratzeko zailtasunak egon eta errepikatzen bada, tutoreak bitartekari lana egingo du gurasoen eta begiralearen artean.
4. 1. eta 2. kasuetan , gurasoen eta irakaslearen artean komunikazio arazoak badaude Ikasketa Buruak, Zuzendariak edo beste irakasleren batek bitartekari lana egin beharko du. Egoera larrietan Zuzendaritza taldeak eta Behatokiak erabakiko dute zein laguntza/irtenbide eman.
5. Familiek, euren kexua aintzat ez dela hartzen uste badute, beti dute ikuskariarengana jotzeko eskubidea. Halere, gainerako aukera guztiak agortu ondoren bada, hobe .

B.- EGOERA

Familiek irakasle batekin arazoa dute:

Familiek eman beharreko pausoak

1. Tutoreari arazoaren berri emango diote.
2. Arazoa tutorearekin badute berriz,Zuzendaritza Taldearengana edo Elkarbizitza Behatokira joango dira berri ematera.
3. Elkarbizitza Behatokiak edo Zuzendaritzak bitartekari bat izendatuko du gurasoen eta irakaslearen arteko arazoari irtenbidea emateko.

4. Aurreko saiakerek ez badute emaitzarik izaten, kanpoko laguntza eskatuko da: Ikuskaritza, Berritzegunea...

C.-EGOERA

Familiak eskolarekin, orokorrean, arazoa dute:

Familiak eman beharreko pausoak

1. Elkarbizitza Behatokiari emango diote arazoaren berri. Hura, Zuzendaritzarekin hitz egin ondoren, irtenbide bat aurkitzen saiatuko da.
2. Behatokiak egoki ikusten duen familia ordezkari bat hautatuko du bitartekari lana egiteko.
3. Aurreko saiakerek ez badute emaitzarik izaten, kanpoan laguntza aurkitu beharko da: Ikuskaritza, Berritzegunea...

BETI KONTUAN IZATEKOA: garrantzitsua da ikastetxearekin zerikusia duten arazoak, ikastetxean konpontzea eta ez beste lekuren batean.